AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 51. alea | DATA: 2025/10/31

GUREAN

GURE FAMILIAK, MENDIAN

Mendia izugarri gustatzen zaigu ikastolan eta asteburuetan ere naturan gozatzea plan ederra da askorentzat. Mendi egutegiari hasiera eman zioten pasa den asteburuan. Urriaren 26an Sakonetara joan ziren hainbat familia eta izugarri disfrutatu zuten elkarrekin. Hurrengo irteera azaroaren 16an egingo dute eta Agorregin elkartuko dira. Ikasturte honetako datak hauek dira: abenduak 14, urtarrilak 25, martxoak 1, apirilak 19 eta maiatzak 17. Apunta zaitezte!

GURE INGURUAN

GAU BELTZA

NOIZ: URRIAK 31
NON: ALTZAN

Gau misteriotsu hau ospatzeko plan ederra da Altzako Plaza Gorrira hurbiltzea. Mozorroa prestatu eta gozatu Gau Beltzaz!

INFO+

BAZENEKITEN?

DBHko DET taldekoek bideo bat grabatu dute Gau Beltzarako. Beldurtzeko prest?

IKUSI NAHI?

ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus